

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN ETA EUSKADIKO GARAPENERAKO GKEen KOORDINAKUNDEAREN ARTEKO HITZARMENA, KOORDINAKUNDEA EAeko GIZARTEAREN AGENTE BULTZATZAILE GISA INDARTZEA HELBURU DUEN PROGRAMA BAT FINANTZATZEKO

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abuztuaren 3a

BILDU DIRA:

Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (aurrerantzean eta aukeran GLEA) zuzendaria.

Ana María Arriola Palomares andrea, GGKE Elkarte Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundearen (aurrerantzean Koordinakundea) presidentea.

ESKU HARTU DUTE:

Lehenak Garapenerako Lankidetzaren Euskal agentziaren izenean eta hura ordezkatur.

Bigarrenak Koordinakundearen izenean eta hura ordezkatur.

HAU ADIERAZI DUTE:

Lehena.- Koordinakundea irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, AS/B/01166/1988 erregistro-zenbakia duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean 1988ko irailaren 19an inskribatuta dagoena.

Bigarrena.- GGKEek —Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek—, gizarte zibilaren zati diren aldetik, funtsezko zeregina dute Hegotik baztertutako pertsonen interesak biltzen dituen gizarte-sarea indartzeko lanean, erakunde horiek beren garapen-prozesuak eta prozesu horiekin lotutako proiektuak definitu eta kudeatzeko. Nolanahi ere, zeregin garrantzitsua betetzen dute iparraldean; izan ere, bizitzen ari garen aldaketa sozialen eta egoeren lekuko izateaz gain, zeregin aktiboa dute bizi garen gizartearen egiturazko premiak definitzeko eta zehazteko garaian sozialki konprometituago dagoen ingurune zibila lortzeko, eskubideak dituzten objektu pasiboak izatetik subjektu aktibo arduratsuak izatera igaroz. Egungo egoera sozioekonomikoak eta politikoak herritarren kolektiboan uzten duen arrastoaren

aurrean, ulertzen da gero eta beharrezkoagoa dela partaidetza eta eraikuntza aktiboa izatea justizia global unibertsalaren alde.

Hirugarrena.- Egiaztatutako premia horrekin bat etorriz, Koordinakundeak honako eremu hauetan kokatzen du bere zeregina, besteak beste: eraldaketa sozialaren, desberdintasunak gainditzearen eta mundu bidezkoagoa lortzeko borrokaren jomugan. Esparru horretan, Koordinakundeak, Euskadiko 80 GGKE baino gehiago biltzen dituen erakundea denez, aukera ematen du agenteak elkarrekin koordinatzeko; horretarako, gainera, modu unitarioan eta kolektiboan gauzatzen diren jardunen hedapen zabala egiten da, gogoetarako eta prestakuntzarako guneak sor daitezen sustatuz.

Laugarrena.- Garapenerako lankidetzaren testuingurua tokiko, estatuko eta nazioarteko mailara aldatu denez, Koordinakundeak, 2013. urtetik aurrera, lankidetzaren etorkizuneko erronkei buruzko gogoeta-prozesu bat bultzatu du, kide diren GGKEak eta Koordinakundea bera lau ardatzen inguruan (testuingurua, arau-esparrua, mugimendu sozialekiko harremana eta enpresekiko harremana) iritzia emateko ideiak ezartzeko asmoz. Dituzten helburuak eta jomugak birformulatze aldera, orain ere lehentasuna dute politikan eragiteko, gizartea eraldatzeko eta Koordinakundea bera hobetzeko egiten diren lanek.

Bosgarrena.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia —Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legean ezartzen diren printzipio eta egituren multzoan biltzen dena— Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzako politikaren plangintza lantzeaz arduratzen den Zuzenbide Pribatuko erakunde publikoa da, Agentzia sortu zuen araudian ezartzen denari jarraiki; horretaz gain, politika hori koordinatzeko, kudeatzeko eta egikaritzeko ardura du, betiere pobrezia-aren aurka borrokatzeko eta herrialde pobretuetan giza garapen iraunkorra sustatzeko ildoan.

Seigarrena.- Koordinakundearen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren esperientzia 1994. urtean hasi zen garai bateko garapenerako lankidetzaren Zuzendaritzaren bitartez. 2011. urtetik aurrera, lankidetzaren hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bitartez bideratu da. Lankidetzaren horren bitartez aurrera egin da kalitateko euskal lankidetzaren eraikuntza kolektiboan, dauden gaitasun sozialak mugiarazteko gai den lankidetzaren, gizarte zibil antolatuen eta administrazio publikoen arteko loturak indartuz.

Aurrekoak kontuan izanda, bi alderdiek hitzarmen hau sinatu dute, betiere ondoren adierazten diren klausulei jarraiki,

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea alderdi sinatzaileen, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Koordinakundearen arteko harremanak arautzea da, Koordinakundeak eta kide diren erakundeek —euskal gizartearen agente bultzatzaile gisa— eraldatzeko eta aldaketa aktiborako duten gaitasuna indartzeko helburu duen proiektua finantzatzeko

BIGARRENA.- Hitzarmenaren emaitzak

Hitzarmen honekin lortu nahi diren emaitzak honako hauek dira:

1. emaitza: Lankidetz-politiketan eragin da eta garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren alorrean nahiz politiken koherentziaren alorrean indarrean dagoen legeria betetzen dela zaindu da, genero-zeharkakotasuna sartuz posizionamenduetan, jardueretan eta dokumentuetan.

2. emaitza: Komunikabideetan eta gizartean honako hauek zabaldu dira modu kritikoan, proposamen gisa eta genero-ikuspegia sartuta: Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko desberdintasunen arrazoiak eta ondorioak, eta aberastasun-banaketa desorekatua geure ingurunean.

3. emaitza: Gizarte-mugimenduekin sareak eta itunak sor daitezen sustatu da, mobilizatzen den gizarte-oinarria zabaltzeko eta alternatiba pluralak eratzeko.

4. emaitza: Kide diren erakundeen eta Koordinakundearen gaitasunak hobetu dira dituzten helburuak modu koordinatuan, eraginkorrean, efizientean, barne-koherentziaz eta genero-ekitatez lortzeko.

HIRUGARRENA.- Jarduerak egikaritzeko epea

Jarduerak egikaritzeko epea 24 hilabete izango da, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera.

LAUGARRENA.- Izenpetzen duten alderdien aurrekontu-ekarpenak.

Aurreko klausuletan adierazitakoa egiteko aurreikusitako kostua BOSTEHUN ETA LAUROGEITA BAT MILA ZORTZIEHUN EURO ETA ZERO ZENTIMO da (581.800,00 €); kopuru hori xehatuta ageri da erantsitako aurrekontu-taulan.

Koordinakundeak bere gain hartuko du aurreko klausuletan ezarritako ekintza guztiak egikaritu eta kudeatzeko koordinazio teknikoa, baita erantsitako plangintzako ideia nagusian bildutakoak ere, guztira EHUN ETA HIRUROGEITA SEI MILA ZORTZIEHUN

EURO ETA ZERO ZENTIMOKO (166.800 euro) ekarpena egingo du hirugarrenen ekarpenekin.

GLEAK LAUREHUN ETA HAMABOST MILA EURO ETA ZERO ZENTIMOKO (415.000,00 €) ekarpena egingo du. Zenbateko hori honela ordainduko zaio Koordinakundeari:

% 50, BERREHUN ETA ZAZPI MILA BOSTEHUN EURO ETA ZERO ZENTIMO (207.500,00 €), hitzarmena sinatu ondoren.

Beste % 40 osagarri bat, hau da, EHUN ETA HIRUROGEITA SEI MILA EURO ETA ZERO ZENTIMO (166.000,00 €), diru-laguntzaren % 40ko edo hortik gorako zenbatekoa justifikatu ondoren. Horretarako, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari igorri beharko zaio dagokion txosten tekniko-finantzarioa.

Gainerako % 10a, hau da, BERROGEITA BAT MILA BOSTEHUN EURO ETA ZERO ZENTIMO (41.500,00 €), diru-laguntzaren % 100 justifikatu ondoren. Horretarako, dagokion txosten tekniko-finantzarioa bidali beharko da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziara sei hilabetetik gorakoa ez den epean, hitzarmena amaitzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Hitzarmen honetan aurreikusitako diru-laguntza bateragarria da beste edozein erakunde publikok nahiz pribatuk helburu berarekin emandakoekin, betiere horren ondorioz gain-finantzaketarik sortzen ez bada. Gain-finantzaketarik izanez gero, diru-laguntza gehieneko mugaraino murriztuko da.

Erantsitako aurrekontu bananduan ezarritakoak izango dira diruz lagundutako partidak.

BOSGARRENA.- Hitzarmenaren banku-kontu espezifikoa

Koordinakundeak 3035 0080 9208 0007 0355 banku-kontua erabiliko du kontu espezifiko gisa (eurotan), hitzarmen hau betez Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak helaraziko dion dirua kudeatzeko. Ordainketa bakoitzean Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak transferitutako diru-kopurua berariazko kontu horretara transferituko da berehala, eta ezin izango da aurrez inolako funts-mugimendurik egin.

SEIGARRENA.- Jarraipen Batzorde Misto

1. Jarraipen-batzorde misto bat eratuko da, hitzarmen honetan aurreikusitako jardueren jarraipena, gauzatzea eta koordinazioa bermatzeko; batzordea osatuko dutenak honako hauek dira:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bi ordezkari, agentziaren zuzendariak izendatuak; haietako bat Batzordeko presidentea izango da, eta bestea, idazkaria.

Koordinakundeko bi ordezkari, organo eskudunak izendatuak.

2. Batzorde hori gutxienez behin bilduko da ohiko moduan lehenengo egikaritzapen-urtearen bukaeran edota 1. txosten tekniko-finantzarioa aurkeztu ondoren, eta beste behin, proiektua amaitzean, azken txostena aurkeztu ondoren.

3. Salbuespenez, Jarraipen Batzorde Mistoako kideak bilduko dira alderdietako batek egokitzat ikusten badu eta horretarako eskaera egiten badu.

4. Jarraipen Batzordearen erregimen juridikoak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean kide anitzeko organoei buruz jasotako arauari jarraituko die.

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmena suntsiarazteko kausak

Iraunaldia bete duelako azkenduko da hitzarmen hau, eta, horrez gain, honako arrazoi hauengatik ere bai:

- a) Hitzarmenaren sinatzaileak ados jarri direlako.
- b) Jarduerak egitea edo jardunekin jarraitzea beharrezkoa ez izatea edo ezinezkoa izatea eragiten duten zirkunstantziak badaude.
- c) Hitzarmen honetan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

Hasitako jardunei dagokienez, aldez aurretik amaitzen badira, benetan egindakoak likidatuko dira, betiere egikaritutakoa erabilgarria bada.

Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak betetzen ez badituzte bete ez duen alderdiari jakinaraziko zaio eta 15 egutegi-eguneko epea emango zaio ez-betetzea zuzentzeko.

ZORTZIGARRENA.- Funtsezko aldaketak

Koordinakundeak baimena eskatu beharko du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian, proiektuan funtsezko aldaketak eta luzapenak dakartzan edozein aldaketa egin aurretik. Aldaketa horiek Jarraipen Batzorde Mistoaren esparruan aztertuko ahalko dira. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari dagokio proposatutako aldaketak onartzea.



BEDERATZIGARRENA.- Indarraldia

Hitzarmenaren indarraldia hitzarmena izenpetzen den egunean hasi eta 2016ko abenduaren 31n amaituko da.

Bi alderdiek, ados daudela eta adierazitako guztia onartzen dutela erakusteko, dokumentu hau sinatu dute, bi aletan, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.

Stua.: Paul Ortega Etcheverry jauna

Stua.: Ana María Arriola Palomares
andrea

Garapenerako Lankidetzaren Euskal
Agentziaren zuzendaria

GGKE Elkarte Euskadiko Garapenerako
GKEen Koordinakundearen presidentea

I. ERANSKINA: AURREKONTUA

KONTZEPTUA		GLEA	Beste ekarpen batzuk	GUZTIRA
A.I.	Materialak	6.000,00	5.486,00	11.486,00
	Bulegoko materialak	500,00	1.750,00	
	Informatika-ekipoak	3.400,00	2.500,00	
	Fotokopiak	2.100,00	1.236,00	
A.II.	Langileak	328.371,00	114.655,63	443.026,63
	Koordinazio orokorra	50.751,58	22.916,39	
	Koordinazio adm.	93.007,26		
	ISPren alorreko teknikaria	82.275,66		
	Generoaren alorreko teknikaria	60.659,18	10.808,24	
	Komunikazio-teknikaria	21.999,00	29.352,27	
	Gipuzkoako STren arduraduna		22.357,35	
	Gipuzkoako Sareak	19.678,32	27.721,38	
	Kontabilitateko laguntza teknikoa		1.500,00	
A.III.	Bidaia eta egonaldia	7.400,00	2.530,00	9.930,00
	Euskadi barruko joan-etorriak	6.000,00	2.530,00	
	Euskaditik kanpoko joan-etorriak	1.400,00		
A.IV.	Kontratazioak	67.359,00	36.743,09	104.102,09
	Idazkaritza Teknikoa	6.079,00	9.437,92	
	GGKEen presentzia Araban eta Gipuzkoan		1.850,00	
	Ikerketa eta Prestakuntza	24.180,92	4.400,00	
	Ahotsa aldizkaria	11.518,48	338,00	
	Memoria	3.000,00	1.250,00	
	Web	1.282,60		
	ISP ekintzak	17.698,00	18.090,12	
	Sentsibilizazio eta Komunikazio Kanpaina	3.600,00	1.377,05	
A.V.	Funtzionamendua	5.870,00	7.385,28	13.255,28
		5.870,00		
ZUZENEKO KOSTUAK GUZTIRA		415.000,00	166.800,00	0,00
B	ZEHARKAKO KOSTUAK	0,00		0,00
B	Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-gastuak			0,00
GUZTIZKO OROKORRA		415.000,00	166.800,00	581.800,00

II. ERANSKINA: PLANGINTZAKO IDEIA NAGUSIA

HELBURUA :: OBJETIVO	
GGKEek eta Koordinakundeak Euskadiko gizartearen agente bultzatzaile gisa eraldatzeko eta aldaketa aktiboa egiteko duten gaitasuna sustatzea.	
EMAITZAK :: RESULTADOS	
1. emaitza:	
Lankidetzeta-politiketan eragin da eta garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren alorrean nahiz politiken koherentziaren alorrean indarrean dagoen legeria betetzen dela zaindu da, genero-zeharkakotasuna sartuz posizionamenduetan, jardueretan eta dokumentuetan.	
ADIERAZLEAK :: INDICADORES	<p>E.1.1.1. Koordinakundeak gutxienez 3 elkarrizketa-bilera egin ditu urtean Euskadiko 7 erakunde nagusietan ordezkari bat duten talde politikoekin, eta urtean gutxienez agerraldi bat egin du ordezkari bat organoen aurrean.</p> <p>E.1.1.2. Lortu da gutxienez 5 inpaktu izatea hedabideetan lankidetzeta deszentralizatuari buruzko azterlan argitaratu ondoren azterlan horretatik ateratako ondorioei buruzko informazioekin.</p> <p>E.1.1.3. Lankidetzara bideratutako ehunekoei Euskadiko 7 erakunde nagusietan finkatutako gutzizko aurrekontuen barruan eutsi zaie edota igo egin dira.</p> <p>E.1.1.4. Lankidetzara bideratutako ehunekoa kalkulatzeko akordio bat lortu da, Euskadiko erakunde guztientzako berdina.</p> <p>E.1.1.5. Urtero, Koordinakundearen GGKEen % 40k gutxienez parte hartu du ordezkari bat eremuetan eta garapenerako lankidetzaren ereduari eta lankidetzeta-politikei buruzko eztabaidan.</p> <p>E.1.1.6. Urtero, Koordinakundeak landutako gutxienez 4 posizionamendu jaso dira lankidetzeta-erakunde publikoen plangintza-prozesuetan (gida-planak, estrategiak, arau-esparrua...).</p> <p>E.1.1.7. Gutxienez 2 hauteskunde-programatan bildu da Koordinakundeak proposatutako konpromisoren bat.</p>
EKIMENAK :: ACTIVIDADES	
<p>E.1.1. Etengabeko elkarrizketa iraunkorra izatea alderdi politikoetako, kargu publikoetako, agenteetako eta erakundeetako ordezkariekin.</p> <p>E.1.1.1. Aldizkako bilerak alderdi politikoekin eta lankidetzeta-politikak egiteko ardura duten erakunde nagusiekin (EJ, aldundiak eta hiriburu-udalak).</p> <p>E.1.1.2. Presentzia aktiboa erakunde-eremuetan (Gasteizko Parte Hartzeko Behatokia, Eusko Jaurlaritzaren Batzar Nagusiak...) eta agerraldiak eremu horietan.</p> <p>E.1.1.3. Bermatzea genero-ekitateari dagokionez eska daitezkeen eskakizunak betetzen dituela Koordinakundeak aurreko eremu horietan guztietan.</p>	
<p>E.1.2. Aurreikusitako hauteskunde-esparruan (udal- eta foru-hauteskundeak 2015ean, hauteskunde autonomikoak 2016an) eragiteko estrategia bat egitea.</p> <p>E.1.2.1. Lankidetzeta-politikan hartutako konpromisoei buruzko dokumentu bat egitea hauteskunde-programetan sartzeko kalitate-terminoari dagokionez eta % 0,7 betetzeari</p>	

dagokionez.

E.1.2.2. Bilerak egitea alderdi politikoen zuzendaritza-batzordeekin konpromisoak eta eskariak sartzeko.

E.1.2.3. Hauteskunde-programei jarraipena egitea eta programak aztertzea.

E.1.2.4. Programa balioestea eta hedatzea, alderdi politikoei beren hauteskunde-promesak betetzen dituzten erkatuz.

E.1.2.5. Agintzen duten erakundeek ezarritako politiken jarraipena egitea.

E.1.2.6. Ekain Sarearekin batera eta osagarri gisa lan egitea hauteskunde-deialdien esparruan, gizarteratzearen eta elkartasunaren ikuspegi zabalenetik.

E.1.3. Nazioarteko lankidetzari, garapenerako hezkuntzari eta finantzaketa-tresnei buruzko proposamen integralak eta koherenteak egitea, betiere genero-ikuspegia txertatuz.

E.1.3.1 Posizionamendu komunak lantzea eta adostea erakunde publikoei eta Euskadiko gizarteri helarazteko gure sentsibilizazio-lanaren zati gisa.

E.1.3.2. Politikan eragiteko gure lanaren oinarri den Esparru Dokumentuaren kapitulu berriak egitea.

E.1.3.3. Garapenerako Politiken Koherentzian sakontzen jarraitzea.

E.1.3.4. Garapen-politiketan eta Euskadin egindako beste politika batzuetan (hezkuntza, berdintasun-politikak, eta abar) genero-ekitatea lantzen duen ikerketa-ildo espezifikoak sortzea.

E.1.3.5. Agentziarekin batera lan egitea Garapenerako Politiken Koherentziaren egungo egoerari eta garapenari buruzko azterlana egin ondoren, erkatzeko gutxienez hiru bilera eginda.

E.1.4. Partaidetza aktiboa izatea elkarrizketak egiteko eta eragiteko hainbat eremutan.

E.1.4.1. Presentzia aktiboa ordezkartza duen bost kontseilutan: Euskal Kontseilua eta Artezkaritza Kontseilua, eta Gasteizen, Donostian eta Bilbon dauden Kontseiluak.

E.1.4.2. Nazioarteko lankidetzari eta elkartasunari buruzko proposamenak eta eztabaidarako dokumentuak jakinaraztea; jarraipena egitea informazioari eta erakundeek kontu-ematea egikaritzeari; erakunde horiek bultzatutako arau-ekimenak (gida-planak, dekretuak...) aztertzea, eztabaidatzea eta haien inguruko proposamenak egitea.

E.1.4.3. GLOaren ehunekoa –euskal erakunde nagusiek bideratua– kalkulatzeko sistema homogeneoa lortzeko ahalegina egitea eta sistema hori Erakundearteko Batzordera bidaltzea han eztabaidatzeko.

E.1.5. Euskal lankidetzaren politika orokorrari jarraipena egitea, lankidetzara bideratutako zenbatekoa, zenbateko horren jomuga eta politika horien kalitatearekin zerikusia duten beste gai batzuk aztertuz.

E.1.5.1. Lankidetzaren deszentralizatuari buruzko azterlana (2011-2014) eguneratzea eta jendaurrean zabaltzea.

E.1.5.2. Bilakaera orokorra aztertzea funtsak lankidetzara bideratzen dituzten euskal erakundeetan, bai genero-zeharkakotasunari dagokionez, bai emakumeak ahalduzko sektorialari dagokionez.

E.1.5.3. Indarreko legeria betetzen dela aztertzea, aldizkako bilerak erakundeekin eta haren balioespenak.

E.1.5.4. Euskal erakunde nagusien aurrekontuaren egikaritze-maila aztertzea.

2. emaitza:

Komunikabideetan eta gizartean honako hauek zabaldu dira modu kritikoan, proposamen gisa eta genero-ikuspegia sartuta: Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko desberdintasunen arrazoiak eta ondorioak, eta aberastasun-banaketa desorekatua geure ingurunean.

ADIERAZLEAK :: INDICADORES

E.2.1.1. Gutxienez 3 hedabidetan argitaratu dira euskal lankidetzak lagundutako Hegoaldeko emakumeen –lehenespenez– lekukotzak eta erakusketa gutxienez 3 gunetan jarri da Euskadiko geografian.

E.2.1.2. Hitzarmen honen indarraldian, Koordinakundeak koherentziari, genero-ekitateari eta garapenerako hezkuntzari buruzko alderdiak biltzen dituen komunikazio-ekintzak (iritzi-artikuluak, prentsa-oharrak, eta abar) gauzatu dituen urte bakoitzean gutxienez 4 inpaktu mediatiko lortu dira.

E.2.1.3. Koordinakundearen webgunera egindako bisita kopurua gutxienez % 10 igo da aurreko urtearekin alderatuta (2014ko oinarrizko ildoak: 66.976).

E.2.1.4. Aurreko urtearekin alderatuta, gutxienez % 10 igo da buletinera harpidetutako pertsona kopurua (2014ko oinarrizko ildoak: 1621).

E.2.1.5. Hitzarmenaren indarraldian, Koordinakundeak, GGKEekin batera, gutxienez 4 ekintza espezifiko egin ditu Koordinakundeak presentzia duen sare sozialetan (facebook, twitter eta youtuberen eta vimeoren kanaletan) hauteskudeen esparruan edo kaleko ekintzak, mintzaldiak edo hitzaldiak hedatzeko esparruan.

EKIMENAK :: ACTIVIDADES

E.2.1. Ikus-entzunezko estrategia sortzaileak eta berriak abian jartzea Hegoaldeko herrialdeetako errealitatei eta dauden desberdintasunei buruz sentsibilizatu, prestatu eta kontzientziatzeko.

E.2.1.1. Nor da nor ekimenarekin jarraitzea (talde eragileari laguntzea, material berriak egitea eta hedatzea, GGKEekin eta bestelako sareekin bat egitea).

E.2.1.2. “Lankidetzaren eraldaketarako” kanpainari buruzko ikus-entzunezko material berriak egitea.

E.2.1.3. Hegoaldeko pertsonen lekukotzak argitaratzea, ahal bada euskal lankidetzak laguntzen dien Hegoaldeko emakumeenak edo elkartasun publikoaren ekintzei balioa ematen dieten euskal lankideenak.

E.2.1.4. “Lankidetzaren eraldaketarako” erakusketarekin jarraitzea erakusketa hori hiru lurraldeetako hainbat lekutan jarritz.

E.2.1.5. Gure mezuak hedatzea ohiko hedabideen bitartez eta sare sozialetan bultzatuz.

E.2.2. Hedabideekiko harremanak bultzatzea, dauden aliantzak indartuz eta zabalduz, eta, aldi berean inpaktu berriak sortzea.

E.2.2.1. Lankidetzaren eta elkartasunaren eremuarekiko sentikorrek diren hedabide eta kazetarien identifikazioa eguneratzea, elkarrekin harremanetan jartzeko bide estuagoak eta hurbilagoak sustatuz.

E.2.2.2. Koordinakundearen GGKEen artean hedatzea mass mediarako sarbidea ahalbidetzen duen eta sustatzen duen datu-basea.

E.2.2.3. Informazio-gosaria kazetariekin, gure intereseko gai bat zorrotasun eta sakontasun handiagoz lantzeko.

E.2.2.4. Doako txertaketak hedabideetan.
E.2.2.5. Elkarlan egonkorak hainbat hedabidetan (Euskadi Irratia, Herri Irratia...).
E.2.2.6. Komunikazio-laguntza ematea kide diren GGKEei eta modu egonkorrean gurekin elkarlanean jarduten duten sareei.
E.2.2.7. Koordinakundearen Komunikazio Planean datozen bi urteetarako ezarritako helburuak betetzea.

E.2.3. Lankidetzari eta elkartasunari buruzko edukiak hedatzea, dauden desberdintasunei buruzko kontzientzia kritikoak sustatzeko ahalegina eginez.

E.2.3.1. Koordinakundearen webgunea etengabe eguneratzea, GGKEei eta sektoreari buruzko informazio berriak emanez.

E.2.3.2. “Munduzmundu” berrikuntzei buruzko buletina astero bidaltzea. Buletin horretan agenda, deialdiak, lan-eskaintzak, boluntariora, artikuluak eta intereseko loturak azaltzen dira.

E.2.3.3. Etengabeko presentzia eguneratua izatea sare sozialetan eta beste blog batzuetan (facebook, twitter, youtube, vimeo, bizitza solidarioko eta solidarioen blogak...).

E.2.3.4. Koordinakundearen urteko memoria argitaratzea (formatu digitala eta bideo memoria) eta helburu diren hartzaileen arabera banatzea.

E.2.3.5. Ahotza aldizkariaren beste hiru ale argitaratzea eta etengabe berrikusten den datu-basearen arabera ezarritako intereseko hartzaileen artean hedatzea.

E.2.3.6. Koordinakundearen kide den GGKEaren direktorioa eguneratzea eta intereseko hartzaileen arabera banatzea.

E.2.3.7. Koordinakundearen arloen arabera egindako sentsibilizazio-materialak hedatzea. Material horietan genero-ikuspegia eta emakumeen ahalduntzearen aldeko apustua sartuko dira.

E.2.3.8. Argazkitegia mantentzea eta hedabideei eskaintzea erabil dezaten.

E.2.4. Informatzeko, elkarrizketak egiteko eta etengabeko laguntza emateko leku bat mantentzea.

E.2.4.1. Koordinakundeak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan dituen hiru ordezkariartan jendea artatzeko zerbitzua (kontsultak, dohaintzak, lan-poltsa, boluntariora...).

E.2.4.2. Boluntariora-txostena eguneratzea, webgunean txertatzea eta intereseko hartzaileen arabera zabaltzea.

E.2.4.3. Boluntariora buruzko mintzaldiak, inplikaturako agenteekin aliantza estrategikoak ezarriz (gazteria-sailak eta -arloak, Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoa, UNKIDE programa, UPV/EHuren Lankidetzaren Bulegoa, Bolunta...).

3. emaitza:

Gizarte-mugimenduekin sareak eta itunak sor daitezzen sustatu da, mobilizatzen den gizarte-oinarria zabaltzeko eta alternatiba pluralak eratzeko.

ADIERAZLEAK :: INDICADORES

E.3.1.1. Koordinakundeak presentzia aktiboa, iraunkorra eta proposamenak egitekoa izan du parte hartu duen sare sozialetan, hau da, honako hauetan: Gune, Euskal Goi-Bilera Soziala, Ekain, TTIParen aurkako Plataforma, Estatuko Koordinakundea, martxoaren 8ko Bizkaiko Emakumeen Koordinakundea, azaroaren 25eko Bizkaiko Emakumeen Koordinakundea, Emakumeen Mundu Martxa, Gizarte Eskubideen aldeko Gasteizko Plataforma eta Arrazakeriaren aurkako Martxa.

E.3.1.2. Hitzarmen honen indarraldian, Koordinakundearen gutxienez 10 erakunde hartu dute parte modu indibidualean aipatutako sareetan, baita Koordinatzaile gisa ere.

E.3.1.3. Koordinakundeak sareko lan-harremana hasi du gutxienez kolektibo berri batekin hitzarmen honen indarraldiaren urte bakoitzean.

E.3.1.4. Koordinakundeak hegoaldeko ikuspegia sartzea bultzatu du sareetan eta plataformetan izan duen partaidetzan, eta sarean sortutako bi posizionamendu publikotan gutxienez jasota geratu da hori.

E.3.1.5. Urte bakoitzean Koordinakundearen sareko ekintzei buruzko 10 inpaktu lortu dira hedabideetan.

E.3.1.6. Urtero, gutxienez sentsibilizazio-ekintza bat egin da lurralde bakoitzean, Pobreziaren aurkako Astearen esparruan, gaiak eta oinarrizko edukiak partekatuz.

E.3.1.7. Lortu da Koordinakundetik kanpoko gutxienez beste erakunde bat sartzea urtero egiten den "Beste mundu batzuk, beste errealitate batzuk" izeneko jardunaldian, gizarte-eragile desberdinekin lankidetzak aktiboa izatea bultzatzeko egiten den jardunaldian, hain zuzen ere.

EKIMENAK :: ACTIVIDADES

E.3.1. Beste kolektibo batzuekin aliantzak eta sareak indartzea, elkartasuneko kultura bultzatuz, desberdintasuna eta pobrezia sortzen duten egiturak alda daitezzen sustatuz eta gure garapen-ereduari buruzko gogoeta ahalbidetuz.

E.3.1.1. Beste sare eta gizarte-mugimendu batzuekiko aliantzei eta bat etortzei buruzko etengabeko gogoeta egitea.

E.3.1.2. Lurraldez gaindiko sare sozialetan partaidetza aktiboa izatea, Koordinakundearen GGKEek (Gune Plataforma, Euskal Goi-Bilera Soziala, TTIP, Emakumeen Mundu Martxa...) hartutako erabakiaren ondoren.

E.3.1.3. Lurraldeko sare sozialetan partaidetza aktiboa izatea, Koordinakundearen GGKEek (Gizarte Eskubideen aldeko Gasteizko Plataforma, martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko Bizkaiko Plataformak eta Donostiako Zero Pobrezia Plataforma) hartutako erabakiaren ondoren.

E.3.1.4. Etengabeko elkarlana kide garen sareetan: Espainiako GGKEaren Koordinakundea edo Ekain Sarea.

E.3.2. GGKEek gizartea eta politika eraldatzeko eragile aktibo gisa egiten duten lana babestea.

E.3.2.1. Hainbat GGKEren arteko elkarlana eta koordinazioa sustatzea jarduerak elkarrekin egiteko.

E.3.2.2. Koordinakundearen GGKEak, sindikatuek eta gizarte-mugimenduek egindako “Desazkundea eta Bizitza Ona” izeneko topaketekin jarraitzea.

E.3.2.3. Mewando Palestinarekin Elkartasun Sarean parte hartzea, sektoreko 4 GGKEk (horietako hiru Koordinakundekoak dira) egiten duten lana babestuz.

E.3.2.4. Arrazakeriaren aurkako Donostiako Martxaren hurrengo edizioak antolatzen laguntzea.

E.3.2.5. Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian parte hartzea.

E.3.2.6. Koordinakundearen GGKEek bultzatutako txertaketetan eta kanpainen laguntzea elkarlanean jarduteko aldagai desberdinetan (hedapena, presentzia), urte hauetako ildoari jarraiki. Ildo hori Garapenerako Hezkuntzaren IV. Biltzarrean edo Emakumeen Eskubideen Auzitegian izandako partaidetzan jaso da.

E.3.3. Koordinakundearen berezko sentsibilizazio-ekintzak garatzea.

E.3.3.1. Pobreziaren aurkako Dei Globalari erantzuteko Estatuan 2004an sortu zen Zero Pobrezia izeneko kanpaina indartzea eta hari laguntzea (sareko lana, prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak, tailerrak ikastetxeetan, urriaren 17a...).

E.3.3.2. “Beste mundu batzuk, beste errealitate batzuk” izeneko sentsibilizazio-jardunaldiaren beste edizio bat egitea.

4. emaitza:

Kide diren erakundeen eta Koordinakundearen gaitasunak hobetu dira dituzten helburuak modu koordinatuan, eraginkorrean, efizientean, barne-koherentziaz eta genero-ekitatez lortzeko.

ADIERAZLEAK :: INDICADORES

E.4.1.1. Genero-ekitatearen eta emakumeen ahalduntzearen gaiarekin zuzenean lotutako prestakuntza espezifiko bat gutxienez eskaini du Koordinakundeak urtero.

E.4.1.2. Urtero, garapenerako eta sentsibilizaziorako gutxienez bi hezkuntza-ekintza garatu dira modu deszentralizatuan lurraldeetan, tokiko erakundeen laguntzarekin eta GGKEen partaidetza aktiboarekin.

E.4.1.3. 2015ean, Koordinakundearen GGKEen arteko koordinazioa hobetu da Gipuzkoan, Unibertsitateekin lan egiteko baterako proiektu pilotu baten bitartez, Unibertsitatea gizartea eraldatzeko eta pentsamendu kritikoa sortzeko eragile estrategikoa baita.

E.4.1.4. 2016an, Koordinakundearen GGKEek eta Unibertsitateak baterako jarduera bat diseinatu dute unibertsitateko ikasleekin garatzeko.

EKIMENAK :: ACTIVIDADES

E.4.1. Informazioa emateko, harremanetan jartzeko eta GGKEak koordinatzeko guneak

E.4.1.1. Koordinakundearen partaidetza-egiturak gogoeta egiteko eta koordinatzeko gune gisa mantentzea eta aberastea (lantaldeak, biltzarrak...).

E.4.1.2. GGKEei laguntzea eta laguntza espezifikoa ematea egiten dituzten eskarietan, bereziki hedabideak eta generoa bere aldagai desberdinetan kontuan hartuta.

E.4.1.3. Zerbitzuak eskaintzea GGKEei (zerbitzuko dosierra, lankidetzeta-deialdien datu-basea, materialak uztea, baliabide bibliografikoak...).

E.4.2. Euskal lankidetzeta-ereduari buruz gogoeta egiteko eta eztabaidatzeko guneak sortzea.

E.4.2.1. Euskal elkartasun-mugimenduaren mapa eta/edo diagnostikoa egitea Koordinakundeak eta Agentziak elkarrekin.

E.4.2.2. Mapa eta/edo diagnostiko horretan inplikaturako eragileak, erakundeak eta hedabideak sartzeta.

E.4.2.3. Lankidetzaren testuinguruari eta arau-esparruari buruzko gogoeta-uneak eta -guneak egitea.

E.4.2.4. Koordinakundearen egindako gogoetak parte hartzen duten guneetara helaraztea, Lankidetzako Euskal Kontseilura, adibidez.

E.4.3. Euskal eragileen gaitasunak, trebetasunak eta eskumenak indartzea.

E.4.3.1. Aldez aurretik definitutako eragileen premia eta gaitasunen diagnostiko espezifikoa.

E.4.3.2. Bilerak egitea garapenerako lankidetzari buruzko masterren eta prestakuntza-programen arduradunekin, Koordinakundearen master eta programa horietan sartzeta proposatzeko.

E.4.3.3. GGKEen gai eta premia komunak identifikatzea prestakuntza-prozesuak bultzatzeko.

E.4.3.4. Laguntza eskatzen duten GGKEei eta erakundeek laguntzea prestakuntza-

prozesuak edo hitzaldi espezifikokoak ematen.

E.4.3.5. Koordinakundearen genero-politikan genero-ekitatearen gaitan prestatzeari dagokionez hartutako konpromisoak betetzea.

E.4.3.6. Koordinakundearen barne-bideen bitartez 2016an baliozkotu ahal izango den prestakuntza-plan bat egiten aurrera egitea.

E.4.3.7. Koordinakundearen GGKEek dagozkien bideak erabiliz (EB, gardentasuna, patriarkala ez den kudeaketa...) erabakitzen dituzten prestakuntza-jarduerak ezartzea.

E.4.4. Koordinakundearen genero-politika ezartzea.

E.4.4.1. Politika publikoen koherentziari eta generoari buruzko ikerketa egitea.

E.4.4.2. Ikerketaren emaitzen hedapena.

E.4.4.3. Genero-loturak aukeratzea Koordinakundearen eremuetan, eta haiei eginkizun espezifikokoak ematea eta koordinazio-bilerak egitea aldizka.

E.4.4.4. Genero-ikuspegia zeharka gauzatzea Koordinakundearen erakunde-dokumentu guztietan.

E.4.4.5. Generoaren atal espezifikoa sartzeari Koordinakunde gisa erakunde publikoen dokumentuetara egiten diren ekarpen guztietan.

E.4.4.6. Genero-ekitatearekin zuzenean lotutako gaiei buruzko prestakuntza espezifikoko bat gutxienez egitea eta bermatuko da eduki hori zeharka gauzatuko dela Koordinakunde gisa ematen diren gainerako prestakuntzetan.

E.4.4.7. Genero-ikuspegia Koordinakundearen dokumentu edo komunikazio-politika (barnekoa edo kanpoko) orotan sartzeari.

A.4.4.8. Koordinakundearen barruan balioestea ekitatearen aldeko prozesu batekin jarraitzeko aukerarik ote dagoen erakunde-kulturarekin lotutako alderdietan eragiteko.

E.4.4.9. Genero-ekitateari dagokionez eta emakumeak ahalduntzeko sektoreari dagokionez zeharkakotasunak sar ote daitezkeen aztertzen laguntzea.

E.4.5. Lurralde-sareen lana bultzatzea Arabako eta Gipuzkoako lurraldeetan, Koordinakundearen eta GGKEen jarduna deszentralizatzeko ahalegina eginez.

E.4.5.1. Laudioko eta Amurrioko azoka solidarioak, tokiko erakundeen eta instituzioen partaidetza aktiboa izanik, baita Arabako GGKEen presentzia ere.

E.4.5.2. Eztabaida-saioak Arabako GGKEen eta lurraldeko erakundeetako teknikarien artean, sentsibilizatzeko eta garapenerako hezteko jarduerak elkarrekin egitea sustatuz.

E.4.5.3. Arabako sareko lanaren dokumentua eguneratzea. Dokumentu horretan GGKEek lurraldean dituzten lan-aukerak biltzen dira.

E.4.5.4. Zero Pobrezia kanpainaren presentzia eta hiriburuetatik kanpo, Araban eta Gipuzkoan kide diren GGKEen partaidetza.

E.4.5.5. Pertsona estrategikoak identifikatzea Gipuzkoako lurraldean eskualdeekin komunikazio ona izateko.

E.4.5.6. Bilera bat egitea urtero Gipuzkoako eskualde-erakundeak ordezkatzeko dituzten pertsonekin.

E.4.5.7. Proposamenak egitea aldundiei lurralde-ikuspegiari lehentasuna eman diezaieten beren deialdietan.

E.4.6. Lurralde-sareen koordinazio-estrategia indartzea gizartea eraldatzeko Unibertsitatean egindako proiektu pilotu baten bitartez, horretarako sortutako Garapenerako Hezkuntzako talde baten bitartez.

E.4.6.1. Urte bakoitzean 2 topaketa egitea Unibertsitatearen gizarte-eginkizuna zeharkakotzeko esparru-helburuan aurrera eragiteko.



- E.4.6.2.** Bilerak egitea prozesu horiek parte-hartzaileak izan daitezen eta jarritako helburua lortzen laguntzen duten jarduera osagarriak sortzeko.
- E.4.6.3.** Prozesuan lagundu dezaketen eragileak identifikatzea.
- E.4.6.4.** Topaketetatik eratorritako ekintzak ezartzea.